


**Gandiagaren
txakolina,
edo berrikuntza
arinaren artea**



Azaleko irudia: Ainara Lasa

Edizio kritikoa: Paulo Agirrebaltzategi (www.gandiaga.com)

Itzulpenak eta hitzaurrea: Antonio Casado da Rocha

Zuzenketa: Aritz Branton eta Cristina Lasa

Argitaratzaileak: Jakin Fundazioa

Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua

UPV/EHUko AKTIBA Ikerketa Taldeak eta Joxe Azurmendi Katedra

Proiektuak lagunduriko argitalpena

1. edizioa (200 ale): 2023ko ekaina

ISBN: 978-84-949758-1-3

L.G.: D-0503-2023

Jakin^{•eus}
herria kultura hizkuntza

Jakin

Martin Ugalde Kultur Parkea

Gudarien etorbidea, 29

20140 Andoain

jakin@jakin.eus

www.jakin.eus



UPV/EHU

Argitalpen Zerbitzua

Leioako Campusa

Sarriena auzoa, z/g

48940 Leioa

info.editorial@ehu.eus

www.ehu.eus/argitalpenak



Gandiagaren txakolina,
edo berrikuntza arinaren artea

Hitzaurrea

Arantzazura igotzen diren guztiek ikusi ahal dute 60ko eta 70eko hamarkadak garai berritzaileak izan zirela euskal kulturaren. Baina nola sentitzen ziren garai hartan Arantzazun bizi eta lan egiten zuten horiek?

Joxe Azurmendi euskal filosofoak behin idatzi zuen orduko Arantzazuko seminarioa «pobreen unibertsitatea» zela (2009: 41). Eliza katolikoa zen euskal familia askorentzat seme-alabek etxetik alde egiteko eta ogibidea ikasteko zuten modu bakarra, eta halaxe gertatu zen Azurmendirekin eta seminarioko bere adiskide zaharragoa zenarekin, Bitoriano Gandiagarekin. 1968an Azurmendik poema bat argitaratu zuen euskal literaturan apurtzailea izango zena: *Manifestu atzeratua*. Hain zuzen ere, pobrezia sentimendu zorrotz honekin hasi zuen manifestua: «Gure herriak ez dauka kondairarik./ Pobrea da. Ez dauka/ pirata koxkor pare bat,/ langile sofritu batzuk,/ muga zentzugabe asko,/ mila zorigaizto/ besterik. Ez da gutxi».

Ez da harritzekoa, beraz, Arantzazuko basilikan sartzean, urre harribitxirik ez aurkitzea, baizik eta hutsune urdinxka handi bat: aire, egur eta harriz

egindako espazio bizi eta barea. Badagokio nire ustez
hala izatea. Zergatik?

* * *

Hasteko, gogora dezagun pobrezia –soiltasun gisa, eta ez gabezia, ulertuz gero–, *ethos* kristauaren oinarrian dagoela, frantziskotarren kasuan, bereziki. *Laudato si'* gutun entziklikoan, Frantzisko aita santuak gogorarazten du «gutxiago gehiago da» irakaspen zaharra dela tradizio erlijioso askotan, baita Biblian ere. Aita santuak sobrietatean eta gutxirekin gozatzeko gaitasunean oinarritutako hazkundera proposatzen du, non espiritualitate kristauak eta arreta osoz presente egoteak konprentsiarako eta errealizazio pertsonalerako bide asko irekitzen duten (2015: §222).

Ethos hori argi islatzen da Arantzazun, batez ere gaur egun, mundu mailako krisi ekologiko-sozialaren erdian. Krisialdia aitortzen ari dira, gero eta gehiago, buruzagi erlijiosoak, baita komunitate zientifikoa eta arduradun politikoak ere, hala nola António Guterres Nazio Batuetako idazkari nagusia. Urte batzuk baino ez dira falta 2030eko agenda lortzeko, eta NBERen Garapen Programak ohiko negozioetatik harago begiratzen du, «bazterretako ikaskuntza» bizkortzeko eta egungo erronken konplexutasunarekin bat datozen

ikuspegi berriak aurkitzeko. Planteamendu horietako batek «berrikuntza arina» (*frugal innovation*) du ize-na, eta arazoak baliabide simple eta arinez konpontzea lortu duten komunitateengandik ikastean datza.

Berrikuntza arina produktu, zerbitzu edo prozesu erraz, eskuragarri eta jasangarriak garatzea da, baliabide mugatuak dituzten pertsonen beharrak asetzen dituztenak. Garapen bidean dauden herrialdeetako oso gutxirekin aurrera egin behar duten pertsona askoren behaketatik sortu zen berrikuntza arinaren kontzeptua, beraien arazoei irtenbide berritzaileak emateko. Horren inguruko literatura gero eta handiagoa da, baina, laburbilduta, esan genezake kontzeptuaren baitan sartzen direla «gutxiagorekin gehiago egiteko bideak eta helburuak, jende askorentzat edo gehiagorentzat» (Bhatti *et al.* 2018: 181).

Berrikuntza arinaren aldeko arrazoi asko daude, baita aurrekariak ere: berrikuntza arina arian-arian egon da aspaldi, hemen zein han. Nolabait, Gandiagak eta bere belaunaldiak bizi izan zuten aldaketa kulturala berrikuntza arintzat har liteke. Sakonago aztertzea merezi duen kasua da, baina ez dut luze eztabaidatzeko astirik; beraz, poesiara joko dut ilustrazio gisa. Hori dela eta, Gandiagaren artxiboari erreparatuko diogu.

Liburuxka honetako testuak Gandiagaren lehen liburua, *Elorri*, 1962an Arantzazun argitaratu ondoren idatzi ziren. Geroztik Gandiagak utzi egin zion idazteari, baina Jorge Oteitza 1967an Arantzazura etorri zenean, haren eraginez poesiari ekin zion berriro Gandiagak berrogei urte inguru zituela. Emaitza bere bigarren liburua izan zen, *Hiru gizon bakarka*. 1974an argitaratua, nahikoa arrakastatsua izan zen, zenbait pasarte abesti bilakatu eta 70eko eta 80ko hamarkadetan grabatu zirelarik.

Hiru gizon bakarka-ko lehen eta bigarren ataleei «Txakolinaren ospakuntzak» esaten zaie, liturgia poetiko-dramatikoa sortuz txakolinaren inguruan. Gandiaga oso gizon erlijioso zen, baina hemen txakolina ikur laiko gisa erabiltzea erabaki zuen. Zertarako? Uste dut gutxienez bi mailatan ari zela hemen. Lehenengoan, nabarmenenean, txakolina euskaltasunaren sinboloa da. Honela deskribatu zuten behingoz Gandiagak eta Azurmendik, fraideak eta filosofoak, *Hiru gizon bakarka* liburuaren edizio berrikusian epilogo gisa sartu zen testuan: «Ardo marjinal bat. Heldueza. Eta heldugabe gaudena, bistakoa da. ‘Euskalerriaren mikaztasunak *arima* erretzen du, txakolinak bere mikaztasunaz *ahoa* erretzen duen bezala. Ardo pobrea da’» (Gandiaga 1991: 202).

Bigarren maila sakonago batean, euskal herritarrentzat biziki zaila izan zen garai hartan, Francoren diktaduraren amaiera, ia 40 urteko errepresio politikoaren ondoren, txakolina elkartasunaren beharraren sinboloa da. Izan ere, isolamendu soziala eta indibidualismoa beste edozein lekutan bezain problematiko suertatzen dira euskal kulturari. Gandiagak horretaz hausnartu zuen, horri buruz idatzi zuen eta Azurmendirekin izandako elkarrizketetan bere sinbolo propioa interpretatu zuen. Hona hemen arazoa, bere hitzetan:

Lehen baserritarren arazo sozialean esan dudana hura. Ezin bategin. Horixe bizi dugu gaur ere. Denak 'abertzaleak' eta ez dakit zenbat taldetan sakabanatuta, elkarri ostikoka denok. Literarioki hortxe datza hiru gizon horien jokoak. Paper bat bera hirukoiztuta. Horiek dira, gauza bera esan eta esan ari diren hiru tipo, baina batak besteari entzun gabe. Lehenengo, errito baterako, denak bateratu egiten dira, *Txakolinaren ospakuntzetan*, 1 eta 2. Gero banatu egin dira berriro. Errittoa bukatu eta badoa bakoitza bere taldekeriara. Baina hiru katu horiek, bakarka izanik, problema bera bizi dute. Miseria bera sufritzen dute. Bakarrik, orain ere ez dutela jakin nahi, elkartu nahi, eta nahiago dutela elkartu baino Gomistegiko atariko txakur egon. Gure betiko historia da. (*Ibid.*: 204)

Hogeita hamar urte baino gehiago igaro dira Gandiagak hori esan zuenetik, eta gauza batzuk hobetu egin

dira. Txakolina, esate baterako. Indibidualismoa eta bakardadea, tamalez, ez horrenbeste; izan ere, areagotu egin direla esango nuke. Horregatik, elkarrekin egoteko modu berriak ikastea eta esperimentatzea izan liteke, azken finean, Euskal Herriko berrikuntza arinaren egungo erronka, eta nazio txiki honek mundu zabalari egin diezaiokeen ekarpen handi bat.

Baina zer ekarpen mota litzateke hori? Gandiagaren testuetan, gutxienez, lau ezaugarri daude berrikuntza arinarekin lot ditzakegunak. Lehenik eta behin, Gandiagak planteatzen duen berrikuntza mota ez da izango konponbide teknologiko erraza, baizik eta *kontzientzian* oinarritzen den jardunbide zaila: «Kontzientzia gabe ezer ez gara. Hostoak hego-haizean. Baina kontzientzia hori garratza da. Mingarria eta exigentea» (*ibid.*: 203). Bigarren ezaugarria da *behetik gorako* mugimendua dela berrikuntza arina; mahats orpoak mila sustraiz lurraren guna xurgatzen duen eran deskribatzen du Gandiagak. Hirugarrenik, *hizkuntzarekin* esturik lotuta dago: txakolinaren liturgiak jendea elkartu nahi du euskararen eta artearen inguruan. Laugarrenak *bizitza* jartzen du erdian, norbanakoa zein komunitatearena. Zeren, hizkuntzarik gabe, komunitatea bera hiltzen baita: «Bizitza maite dugu. Bizitza, bai norberarena eta bai

herriarena, bakoitzak maite izaten duen partearena»
(*ibid.*: 198).

* * *

Hiru gizon bakarka-ko txakolinaren liturgia hainbat poemek osaturiko *collage* dramatikoa da, bi zatitan banatua. Nik dakidala ez da inoiz ingelesera itzuli. Ongi legoke hizkuntza horretan zerbait edukitzea Arantzazura inguratzen diren nazioarteko bisitari eta lagunek irakurtzeko, Arantzazuk eman duen poesia dasta dezaten lagin txiki batean bada ere. Baina, nondik hasi?

Argitaratutako liburuaren pasarte bat aukeratu beharrean, zirriborro labur batzuekin hastea erabaki nuen. Izan ere, Gandiaga niretzat ez da «idazle bat» besteren artean, baizik eta noizean behin olerkiak idazten zituen fraide bat. Oteitza edota Azurmendi bezalako lagunei irakurtzeko paper sakabanatuetan idatziak, zirriborro xume haiek Gandiagaren poesia egiteko moduaren lekuko dira. Bukatu gabeko piezak direnez, pasarteek bertsio alternatiboak eta hitz ezabatuak edo irakurgaitzak dituzte. Hala eta guztiz ere, xarmagarriak eta are ederrak iruditzen zaizkit beren sinpletasunean, eta Gandiagaren ekarpena irudikatzen balio dutelakoan nago, bai estiloari bai

mamiari dagokienez, hainbat gai unibertsal jorratzen baitituzte: herria, natura, sufrimendua, itxaropena, aldaketa.

Testu batzuk argitaratu egin ziren. Adibidez, bilduma honetako 7. pasartea, Egañaren freskoak deskribatzen dituen testua, hain zuzen, 1978an Donostiako San Telmo Museoa arte frantziskotarraren erakusketara baterako idatzia izan zen, poesia eta margogintza elkartuz. Arretaz bilatuz gero, Egañaren freskoak basilikan ikus daitezke oraindik.

Gandiaga Arantzazun hil ondoren, 2001ean, Paulo Agirrebaltzategik –frantziskotarra bera eta Jakin Taldeko kidea, Joxe Azurmendi, Joseba Intxausti eta Joan Mari Torrealdairekin batera– lagunak utzitako eskuizkribuak sailkatu eta haren literatur lanen edizio kritikoa zuzendu zuen. Argitaratu gabeko izkribuak 1.650 testu inguru dira. Zein aukeratu hori bezalako edizio txiki eta ez-salgai baterako?

Agirrebaltzategiren lan editoriala oso lagungarria izan zait, gaiak eta azpigaiak erabiliz sailkatu baitzituen testuak, eta horiei esker identifika nitzakeen txakolinaz eta Euskal Herriaz dihardutenak. Hurrengo zortzi testuok Paulok bi etiketa horiekin sailkatutakoak dira. Euskarazkoek jatorrizko bertsioa erreproduzitzen dute, ortografia eguneratu gabe, ohar

editorialak kenduta, ahalik eta modu errazenean irakurri ahal izateko.

2. eta 5. testuak, Gandiagaren poema argitaraga-beak biltzen dituen liburu batean (2005) agertu ziren, ortografia gaurkotuaz.

Erreferentziak

Azurmendi, J. (1968): 'Manifestu atzeratua', *Olerti*, 3-4, 18-27.

— (2009): *Azken egunak Gandiagarekin*, Donostia, Elkar.

Bhatti, Y.; Basu, R.; Barron, D.; Ventresca, M. (2018): *Frugal Innovation. Models, Means, Methods*, Cambridge, Cambridge University Press.

Gandiaga, B. (1991): *Hiru gizon bakarka*, 2. argitalpena, Donostia, Elkar.

— (2005): *Euskalminez*, Donostia, Elkar.

Zortzi orri Gandiagaren
literatur idazlanen artxibotik

1

Adiskide batek txakolin botela bat eman zidan atzo.
Gelako mai gainean euki dut gaur arratsalderarte.
Begira egon natzaio askotan eta inoiz luzaro
edari maitagarria geldirik zegoen.
Antz ematen nion haren pizkortasun garratz-puntuakoari.
Eskuetan ere erabili dut, aldika hartu eta utzi.
Haren otzaren barruan txinparta berogarria abiatzen nuen.
Herri maitearen azala ta anima oroitarazten zizkidan.
Ispiluak bezela islatzen ninduan puxka bat luzeago,
puxka bat melarrago
espiritualago.
Bizi nauan joranak eman oi didan
anima poztura agertu nahi balit
gezurrik esan gabe, idealismuak
eman oi digun ***
irudi egiazkoan
elkarrizketa eder eta alkarren
irudien artu-eman gozoan
ixillik eta mugidarik gabe

2

Begirutzen dut eta beti
jasotzen da eguna.

Urte oro eltzen dire mahatsak
txakolin pixka bat egiteko hainbestean
behintzat.

Batek estuegi hartzen ditu, agian, gertakizunak,
estuegi edo nekazarien zalantza pixka bat ilunez.

Baina aitortu behar dut mahatsondo berriak urte oro
gaztaina taketen gainetan lotzen dituten zenbait
badirela oraindik,

eta, oraindik txakolinari
gustoa hartzen diola Euskal Herriak.

Eta nork daki oraindik txakolina
Baskongadas guztian egarriko ardo
ez ote den izango?

3

Mahatsaren aihen luzeok,
mahatsaren orri zabalok,
mahatsaren mordo helduok
ken zakizkide, zuen orpoa
ari naiz orain bilatzen.

4

Mahatsaren orpoa!
Nor litzakean mahats orpo
mila sustraiz lurraren
guna xurgatzeko!

Euskalerriko lur pendizetan
Mahastuiak lurrari eusten,
mahastuiak lurrari eusten eta
lurra mahastuiak mantentzen.

Mahatsaren orpo nahi nuke
herriko mahastian izan,
mahatsaren orpotik datorren
mama goxuak busti nazan.

Orpoaren ondorago eta
mordoak ederrago.
Aien luzeak –ai ene!–
ostoa besterik ez dute.
Mahatsaren orpo jatorrak
bere nortasuna dauka
bizi duen lurrari
zintzoa zaio-ta.

Kantu ederra da
mahatsaren orpoarena.
Baina mahatsaren orpoa
sinbolo eder bat ere ba da
ulertu nahi duanarentzat.

Herriberan ardo fina
kostaldean txakolina
Euskalerria herri bezala
oraindik fruitu gordina.

5

«Mahatsaren orpotik dator
mama goxua
edango geneukela beterik basua
klink, beterik basua.

Nik zuri, zuk neri, agur egiñez alkarri,
basua txit garbi biarko da ipiñi.»

Gure egia
geure Herria da
Herri bezela bizi nahi
degun egarria.

6

Noizbait,
hainbeste nahiren
sustraietatik
sortuko al da
fruiturik.

Ertengo al du
ardoak
bizirik
noizbait
hainbeste ezinen
dolaretik.

Noizbait,
izango al dugu
opa dugun fruituz
eskuak altu
jasotzerik.

Pintura gorrimin-berdemin garraxka du Egañak.

Horzkidura sortzen du Egañaren pinturak.

Egañak ez du pintura gezarik.

Elkarren aurka jartzen ditu kolore haserreak,
koloreen elkarren arteko burruka baterakoan.

Zer adierazi nahi ote du Egañak kolore latzen
nahaspilla zalapartatsuen bidez?

Drama-airea, istripu-airea, ekintza-airea du
Egañaren konposizio bakoitzak; ihardun leihatsua
ageri dute haren irudiek; gordina du
irudiei ezartzen dien kolorea.

Gizamundu gaiztoegi baten salakuntza ari ote du,
gizabizitza beraren barruko kontradikzio eta
trajedia nabarra itxuratu nahi ote digu hainbeste
asaldamenduzko pinturaz?

Desosegu-zoria sortzen du Egañaren pinturak.

Heltzera heldu ez den gizadiaren

heldu-egarri gazia-edo aldarrikatzen du deihadarrez.

Gogorrek eta ausartak dira Egañaren emaitzak.

Garratzaren grazia bizkorrik badute halere
txakolinak halatsu.

8

Txakolina diotanean
nik ba dakit zer diotan,
ba dakit zer nahi dudan,
zeren bila nabilen,
zerk bizi nauan,
zerk naragian,
zerk naukan iratzarri
bizitzari biziki begira
burrukan;
zergatik dudan mingainean
ahozapaian, ariman,
garraztasun mikatz bat
txisparen amoretan.

